

**ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ XEDATZEN BAITA GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOKO KIDE [REDACTED] JAUNAK ATZERA EGIN DUELA GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN 2016KO UZTAILAREN 19 ETA 20KO ERABAKIEN AURKA 2016KO IRAILAREN 12AN JARRITAKO ERREKURTSOAN.**

---

**Espediente-zenbakia: 17/2016**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2016ko irailaren 12an, [REDACTED] jaunak, Gipuzkoako Atletismo Federazioko kideak, errekurso bat jarri zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordean, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordeak 2016ko uztailaren 19an eta 20an hartutako erabakien aurka.

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurso hori hasiera batean tramitatzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion eta audientzia-tramitea eskaini zion Gipuzkoako Atletismo Federazioari.

**Hirugarrena.**- 2016ko irailaren 29an, [REDACTED] jaunaren idazkia sartu zen, eta horren bitartez jakinarazten zuen atzera egiten zuela Gipuzkoako Atletismo Federazioaren 2016ko uztailaren 19 eta 20ko erabakiaren aurka jarritako errekurtsuan.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsu hau aztertzeko eskumena, horixe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.b) artikuluan; urtarrilaren 10eko 16/2006 Dekretuak, Euskadiko Kirol Federazioenak, 126.2. artikuluan; eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.b) artikuluan.

**Bigarrena.**- Beste edozer baino lehen, [REDACTED] jaunak, Gipuzkoako Atletismo Federazioko kideak, Gipuzkoako Atletismo Federazioko Hauteskunde Batzordeak 2016ko uztailaren 19 eta 20ko erabakien aurka aurkeztutako errekurtsioan atzera egiteak dituen eraginei buruz erabaki behar du Kirol Justiziako Euskal Batzordeak.

Atzera egitea, administrazio-prozedura amaitzeko modu gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 90. eta 91. artikuluetan arautzen da, oro har, eta, haietan xedatzen denez, atzera egitea bete-betean onartuko da, gaiak interes orokorrean eraginik ez badu.

Errekurtsioa proposatutako gaiak zein diren ikusirik, organo honen ustez atzera egitea onartu egin behar da; izan ere, ez du inolako interesdunen eskubiderik kaltetzen eta, errekurtsioaren helburua aintzat hartuta, gaia ez da interes orokorrekoa.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

## **ERABAKITZEN DU**

[REDACTED] jaunak, Gipuzkoako Atletismo Federazioko kideak, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordeak 2016ko uztailaren 19an eta 20an hartutako erabakien aurka Kirol Justiziako Euskal Batzordean jarritako errekurtsioan atzera egin duela xedatzea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 29a.

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL  
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea